c) el tratamiento es necesario para proteger intereses vitales del interesado o de otra persona física, en el supuesto de que el interesado no esté capacitado, física o jurídicamente, para dar su consentimiento;

d) el tratamiento es efectuado, en el ámbito de sus actividades legítimas y con las debidas garantías, por una fundación, una asociación o cualquier otro organismo sin ánimo de lucro, cuya finalidad sea política, filosófica, religiosa o sindical, siempre que el tratamiento se refiera exclusivamente a los miembros actuales o antiguos de tales organismos o a personas que mantengan contactos regulares con ellos en relación con sus fines y siempre que los datos personales no se comuniquen fuera de ellos sin el consentimiento de los interesados;

e) el tratamiento se refiere a datos personales que el interesado ha hecho manifiestamente públicos;



- f) Tratamendua beharrezkoa bada erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko, edo epaitegiek beren funtzio judiziala betez jarduten badute.
- g) Tratamendua beharrezkoa bada funtsezko interes publiko berezi bati buruzko arrazoiak direla medio, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean oinarri hartuta, zeinak proportzionala izan behar baitu bilatzen den helburuarekin; datu-babeserako eskubidearen muina errespetatu behar baitu, eta neurri egokiak eta espezifikoak ezarri behar baititu interesdunaren funtsezko interesak eta eskubideak babesteko.
- h) Tratamendua beharrezkoa bada prebentzio-medikuntzaren edo laneko medikuntzaren helburuetarako, langilearen lan-gaitasuna ebaluatzeko, diagnostiko medikorako, laguntza edo tratamendu sanitario edo soziala emateko, edo laguntza sanitario eta sozialerako sistemak eta zerbitzuak kudeatzeko, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean oinarri hartuta edo osasungintzako profesional batekin hitzartutako kontratu baten indarrez, eta ezertan eragotzi gabe 3. zenbakian jasotako baldintzak eta bermeak.
- i) Tratamendua beharrezkoa bada osasun publikoaren alorreko interes publikoari buruzko arrazoiak direla medio (esate baterako, osasunaren aurkako mugaz gaindiko mehatxuetatik babestea, edo osasun-laguntzaren eta medikamentu edo osasun-produktuen kalitate-maila altua bermatzea), Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean oinarri hartuta, zeinak neurri egokiak eta espezifikoak ezarri behar baititu interesdunaren funtsezko eskubide eta askatasunak babesteko, sekretu profesionala bereziki.
- j) Tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean artxibatzeari begira, edo ikerketa zientifiko edo historikoari edo estatistikari begira, 89.1 artikuluekin bat, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean oinarri hartuta, zeinak proportzionala izan behar baitu bilatzen den
- f) el tratamiento es necesario para la formulación, el ejercicio o la defensa de reclamaciones o cuando los tribunales actúen en ejercicio de su función judicial;
- g) el tratamiento es necesario por razones de un interés público esencial, sobre la base del Derecho de la Unión o de los Estados miembros, que debe ser proporcional al objetivo perseguido, respetar en lo esencial el derecho a la protección de datos y establecer medidas adecuadas y específicas para proteger los intereses y derechos fundamentales del interesado;
- h) el tratamiento es necesario para fines de medicina preventiva o laboral, evaluación de la capacidad laboral del trabajador, diagnóstico médico, prestación de asistencia o tratamiento de tipo sanitario o social, o gestión de los sistemas y servicios de asistencia sanitaria y social, sobre la base del Derecho de la Unión o de los Estados miembros o en virtud de un contrato con un profesional sanitario y sin perjuicio de las condiciones y garantías contempladas en el apartado 3;
- i) el tratamiento es necesario por razones de interés público en el ámbito de la salud pública, como la protección frente a amenazas transfronterizas graves para la salud, o para garantizar elevados niveles de calidad y de seguridad de la asistencia sanitaria y de los medicamentos o productos sanitarios, sobre la base del Derecho de la Unión o de los Estados miembros que establezca medidas adecuadas y específicas para proteger los derechos y libertades del interesado, en particular el secreto profesional,
- j) el tratamiento es necesario con fines de archivo en interés público, fines de investigación científica o histórica o fines estadísticos, de conformidad con el artículo 89, apartado 1, sobre la base del Derecho de la Unión o de los Estados miembros, que debe ser proporcional al objetivo





helburuarekin, datu-babeserako eskubidearen muina errespetatu behar baitu eta neurri egokiak eta espezifikoak ezarri behar baititu interesdunaren funtsezko interesak eta eskubideak babesteko.

3. Artikulu honetako 1. zenbakian aipatutako datu pertsonalek 2. zenbakiko h) letrako helburuetarako tratamendua jaso dezakete baldin eta tratamenduaren egilea sekretu profesionalaren mende dagoen profesional bat bada edo tratamendua haren ardurapean egiten bada, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearekin bat edo erakunde nazional eskudunek ezarritako arauarekin bat, edo sekretu profesionalaren mende dagoen beste edozein pertsona baldin bada tratamenduaren egilea, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearekin bat edo erakunde nazional eskudunek ezarritako arauarekin bat.

4. Estatu kideek baldintza gehigarriak atxiki edo sartu ahal izango dituzte, baita mugak jarri ere, datu genetiko, datu biometriko edo osasunari buruzko datuen tratamenduetan.

#### *10. artikulua*

##### **Kondena eta arau-hauste penalei buruzko datu pertsonalen tratamendua**

6.1 artikuluan xedatutakoa oinarri hartuta kondena eta arau-hauste penalei buruzko datu pertsonalen edo lotutako segurtasun-neurriei buruzko datu pertsonalen tratamendua egiteko, nahitaezkoa izango da agintari publikoen kontrola edo Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen onespina, zeinak berme egokiak emango baitizkie interesdunen eskubide eta askatasunei. Kondena penalen erregistro osoa eramateko, nahitaezkoa izango da agintari publikoen kontrola.

#### *11. artikulua*

##### **Identifikaziorik behar ez duen tratamendua**

1. Datu pertsonalen tratamenduaren

perseguido, respetar en lo esencial el derecho a la protección de datos y establecer medidas adecuadas y específicas para proteger los intereses y derechos fundamentales del interesado.

3. Los datos personales a que se refiere el apartado 1 podrán tratarse a los fines citados en el apartado 2, letra h), cuando su tratamiento sea realizado por un profesional sujeto a la obligación de secreto profesional, o bajo su responsabilidad, de acuerdo con el Derecho de la Unión o de los Estados miembros o con las normas establecidas por los organismos nacionales competentes, o por cualquier otra persona sujeta también a la obligación de secreto de acuerdo con el Derecho de la Unión o de los Estados miembros o de las normas establecidas por los organismos nacionales competentes.

4. Los Estados miembros podrán mantener o introducir condiciones adicionales, inclusive limitaciones, con respecto al tratamiento de datos genéticos, datos biométricos o datos relativos a la salud.

#### *Artículo 10*

##### **Tratamiento de datos personales relativos a condenas e infracciones penales**

El tratamiento de datos personales relativos a condenas e infracciones penales o medidas de seguridad conexas sobre la base del artículo 6, apartado 1, sólo podrá llevarse a cabo bajo la supervisión de las autoridades públicas o cuando lo autorice el Derecho de la Unión o de los Estados miembros que establezca garantías adecuadas para los derechos y libertades de los interesados. Solo podrá llevarse un registro completo de condenas penales bajo el control de las autoridades públicas.

#### *Artículo 11*

##### **Tratamiento que no requiere identificación**

1. Si los fines para los cuales un responsable



helburuek ez badute eskatzen (edo jadanik ez badute eskatzen) tratamenduaren arduradunak interesduna identifika dezan, arduradun hori ez dago behartuta interesduna identifikatzea xede duen informazio gehigarria atxikitzea, lortzera edo tratatzera, erregelamendu hau betetzeko asmo hutsaren amoreagatik.

2. Artikulu honetako 1. zenbakiko kasuetan, arduraduna gai bada frogatzeko ez dagoela interesduna identifikatzeko moduan, horren jakitun ipiniko du arduradunak interesduna, ahal bada. Kasu horietan ez dira aplikatuko 15.etik 20.era bitarteko artikulua salbu eta interesdunak, artikulu horien indarrez bereak dituen eskubideak egikaritzuz, bera identifikatzea ahalbidetuko duen informazio gehigarria ematen badu.

### **III. KAPITULUA**

#### ***Interesdunaren eskubideak***

##### **1. atala**

##### **Gardentasuna eta modalitateak**

###### *12. artikulua*

##### **Interesdunaren eskubideei buruzko informazioaren eta komunikazioaren gardentasuna eta haiek egikaritzeko modalitateak**

1. Tratamenduaren arduradunak behar diren neurriak hartuko ditu interesdunari helarazteko 13. eta 14. artikuluetan adierazitako informazio guztia, bai eta 15.etik 22.era bitarteko artikuluetan eta 34.ean tratamenduari buruz xedatutakoaren inguruko komunikazio guztiak ere, laburki, gardentasunez eta erraz ulertzeko eta eskuratzeko eran eta hizkera argia eta erraza erabilita, batez ere haurrei zuzendutako informazioa denean. Informazioa idatziz edo beste bitarteko batzuen bidez eskuratuko da, baita, komeni bada, bitarteko elektronikoen bidez ere. Interesdunak hala eskatzen duenean, informazioa ahoz eman ahal izango

trata datos personales no requieren o ya no requieren la identificación de un interesado por el responsable, este no estará obligado a mantener, obtener o tratar información adicional con vistas a identificar al interesado con la única finalidad de cumplir el presente Reglamento.

2. Cuando, en los casos a que se refiere el apartado 1 del presente artículo, el responsable sea capaz de demostrar que no está en condiciones de identificar al interesado, le informará en consecuencia, de ser posible. En tales casos no se aplicarán los artículos 15 a 20, excepto cuando el interesado, a efectos del ejercicio de sus derechos en virtud de dichos artículos, facilite información adicional que permita su identificación.

### **CAPÍTULO III**

#### ***Derechos del interesado***

##### **Sección 1**

##### **Transparencia y modalidades**

###### *Artículo 12*

##### **Transparencia de la información, comunicación y modalidades de ejercicio de los derechos del interesado**

1. El responsable del tratamiento tomará las medidas oportunas para facilitar al interesado toda información indicada en los artículos 13 y 14, así como cualquier comunicación con arreglo a los artículos 15 a 22 y 34 relativa al tratamiento, en forma concisa, transparente, inteligible y de fácil acceso, con un lenguaje claro y sencillo, en particular cualquier información dirigida específicamente a un niño. La información será facilitada por escrito o por otros medios, inclusive, si procede, por medios electrónicos. Cuando lo solicite el interesado, la información podrá facilitarse verbalmente siempre que se demuestre la identidad del interesado por



da baldin eta interesdunaren identitatea beste moduren batez frogatzen bada.

2. Tratamenduaren arduradunak 15.etik 22.era bitarteko artikuluetan emandako eskubideen egikaritzea ahalbidetuko dio interesdunari. 11.2 artikulua aipatzen dituen kasuetan, arduradunak ez dio uko egingo interesdunaren eskariz jarduteari 15.etik 22.era bitarteko artikuluen indarrez bereak dituen eskubideak egikaritzeko, salbu eta gai bada frogatzeko ez dagoela interesduna identifikatzeko moduan.

3. Tratamenduaren arduradunak 15.etik 22.era bitarteko artikuluen arabera egindako eskabidean oinarritutako jarduketei buruzko informazioa emango dio interesdunari, eta betiere hilabeteko epean eskabidea jasotzen denetik. Epe hori beste bi hilabetez luzatu ahal izango da, beharrezkoa bada eskabideen konplexutasunagatik eta kopuruagatik. Luzapen horien berri jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunak interesdunari, hilabeteko epean eskabidea jasotzen denetik, eta luzapenaren arrazoiak azalduko dizkio. Interesdunak eskabidea bitarteko elektronikoen bidez aurkezten duenean, informazioa ere bitarteko elektronikoen bidez emango da, ahal dela, salbu eta interesdunak eskatzen bada beste moduren batez jasotzeko.

4. Tratamenduaren arduradunak ez badio bide ematen interesdunaren eskabideari, horri buruzko arrazoiak jakitun jarriko du, bai eta kontrol-agintaritzaren batean erreklamazioa aurkezteko aukera duela jakinaraziko ere, lehenbailehen eta betiere eskabidea jaso eta hilabete baino lehen.

5. Erregelamendu honetako 13.etik 14.era bitarteko artikuluei jarraituz emandako informazioa eta 15. artikulutik 22.era bitarteko artikuluei eta 34.ari jarraituz egindako komunikazio eta jarduketa guztiak doakoak izango dira. Eskabideak argi eta garbi funsgabeak edo neurrigabeak direnean, bereziki errepikakorrek direlako, tratamenduaren arduradunak honetarako aukera izango du:

otros medios.

2. El responsable del tratamiento facilitará al interesado el ejercicio de sus derechos en virtud de los artículos 15 a 22. En los casos a que se refiere el artículo 11, apartado 2, el responsable no se negará a actuar a petición del interesado con el fin de ejercer sus derechos en virtud de los artículos 15 a 22, salvo que pueda demostrar que no está en condiciones de identificar al interesado.

3. El responsable del tratamiento facilitará al interesado información relativa a sus actuaciones sobre la base de una solicitud con arreglo a los artículos 15 a 22, y, en cualquier caso, en el plazo de un mes a partir de la recepción de la solicitud. Dicho plazo podrá prorrogarse otros dos meses en caso necesario, teniendo en cuenta la complejidad y el número de solicitudes. El responsable informará al interesado de cualquiera de dichas prórrogas en el plazo de un mes a partir de la recepción de la solicitud, indicando los motivos de la dilación. Cuando el interesado presente la solicitud por medios electrónicos, la información se facilitará por medios electrónicos cuando sea posible, a menos que el interesado solicite que se facilite de otro modo.

4. Si el responsable del tratamiento no da curso a la solicitud del interesado, le informará sin dilación, y a más tardar transcurrido un mes de la recepción de la solicitud, de las razones de su no actuación y de la posibilidad de presentar una reclamación ante una autoridad de control y de ejercitar acciones judiciales.

5. La información facilitada en virtud de los artículos 13 y 14 así como toda comunicación y cualquier actuación realizada en virtud de los artículos 15 a 22 y 34 serán a título gratuito. Cuando las solicitudes sean manifiestamente infundadas o excesivas, especialmente debido a su carácter repetitivo, el responsable del tratamiento podrá:



a) Arrazoizko kanon bat kobratzeko, kontuan hartuta informazioa emateak edo komunikazioa edo eskatutako jarduketa egiteak berekin dakartzan kostu administratiboak.

b) Uko egiteko eskabideari.

Tratamenduaren arduradunak bere gain hartuko du eskabidea argi eta garbi funsgabea edo neurrigabea dela frogatzeko karga.

6. Erregelamendu honetako 11. artikuluan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, tratamenduaren arduradunak arrazoizko zalantzak baditu 15.etik 21.era bitarteko artikuluetan aipaturiko eskabidea bideratzen duen pertsona fisikoaren identitateaz, interesdunaren identitatea egiaztatzeke behar den informazio gehigarria eskatu ahalko du.

7. Erregelamenduko 13. eta 14. artikuluei jarraituz interesdunei eskuratu beharreko informazioa normalizatutako ikono batzuekin batera eman ahal izango da, zeinek aurreikusitako tratamenduaren ikuspegi osoa argiro ikusteko modua eta erraz ulertzeko eta irakurtzeko era eskainiko baitituzte. Formatu elektronikoa duten ikonoak makina bidez irakurri ahal izango dira.

8. Batzordeak ahalmena izango du 92. artikulua arabera eskuordetutako egintzak emateko, ikonoen bidez eman beharreko informazioa eta ikono normalizatuak eskaintzeko prozedurak zehazteko.

## 2. atala

### Informazioa eta datu pertsonalak irispidean jartzea

#### 13. artikulua

#### Datu pertsonalak interesdunarengandik jaso direnean eman beharreko informazioa

1. Interesdun batengandik berari buruzko datu pertsonalak jasotzen direnean, informazio hau guztia jakinaraziko dio

a) cobrar un canon razonable en función de los costes administrativos afrontados para facilitar la información o la comunicación o realizar la actuación solicitada, o

b) negarse a actuar respecto de la solicitud.

El responsable del tratamiento soportará la carga de demostrar el carácter manifiestamente infundado o excesivo de la solicitud.

6. Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 11, cuando el responsable del tratamiento tenga dudas razonables en relación con la identidad de la persona física que cursa la solicitud a que se refieren los artículos 15 a 21, podrá solicitar que se facilite la información adicional necesaria para confirmar la identidad del interesado.

7. La información que deberá facilitarse a los interesados en virtud de los artículos 13 y 14 podrá transmitirse en combinación con iconos normalizados que permitan proporcionar de forma fácilmente visible, inteligible y claramente legible una adecuada visión de conjunto del tratamiento previsto. Los iconos que se presenten en formato electrónico serán legibles mecánicamente.

8. La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados de conformidad con el artículo 92 a fin de especificar la información que se ha de presentar a través de iconos y los procedimientos para proporcionar iconos normalizados.

## Sección 2

### Información y acceso a los datos personales

#### Artículo 13

#### Información que deberá facilitarse cuando los datos personales se obtengan del interesado

1. Cuando se obtengan de un interesado datos personales relativos a él, el responsable del tratamiento, en el momento en que estos



tratamenduaren arduradunak, datuok lortzen diren unean:

- a) Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta harremanetarako datuak eta, halakorik badago, haren ordezkariarenak.
- b) Datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak, halakorik badago.
- c) Datu pertsonalen tratamenduaren helburuak eta beraren oinarri juridikoa.
- d) Tratamendua 6.1 artikuluko f) letran oinarritzen bada, tratamenduaren arduradunaren edo beste hirugarren baten interes legítimoak.
- e) Datu pertsonalen hartzaileak edo hartzaile-kategoriak, halakorik badago.
- f) Halakorik badago, tratamenduaren arduradunak asmorik duen ala ez datu pertsonalak hirugarren herrialde bati edo nazioarteko erakunde bati transferitzeko, eta Batzordearen egokitzapen-erabakirik badagoen ala ez, edo, 46. edo 47. artikuluan edo 49.1 artikuluko bigarren paragrafoan adierazitako transferentzien kasuan, berme egokiekiko edo egokituekiko erreferentzia eta berme horien kopia bat lortzeko bitartekoekikoa edo haiek eskuragarri jarri diren tokiarekikoa.

2. Artikulu honen 1. zenbakian aipatutako informazioaz gainera, informazio hau helaraziko dio tratamenduaren arduradunak interesdunari datu pertsonalak eskuratzen dituen unean, zeina ezinbestekoa baita datu-tratamendu fidela eta gardena bermatzeko:

- a) Datu pertsonalak noiz arte kontserbatuko diren edo, hori ezinezkoa bada, epe hori zehazteko zer irizpide erabiliko diren.
- b) Eskubidea duela berari buruzko datu pertsonalak irispidean izateko, zuzentzeko edo ezerezteko, tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko, edo datuok transferitzeko.

se obtengan, le facilitará toda la información indicada a continuación:

- a) la identidad y los datos de contacto del responsable y, en su caso, de su representante;
- b) los datos de contacto del delegado de protección de datos, en su caso;
- c) los fines del tratamiento a que se destinan los datos personales y la base jurídica del tratamiento;
- d) cuando el tratamiento se base en el artículo 6, apartado 1, letra f), los intereses legítimos del responsable o de un tercero;
- e) los destinatarios o las categorías de destinatarios de los datos personales, en su caso;
- f) en su caso, la intención del responsable de transferir datos personales a un tercer país u organización internacional y la existencia o ausencia de una decisión de adecuación de la Comisión, o, en el caso de las transferencias indicadas en los artículos 46 o 47 o el artículo 49, apartado 1, párrafo segundo, referencia a las garantías adecuadas o apropiadas y a los medios para obtener una copia de estas o al hecho de que se hayan prestado.

2. Además de la información mencionada en el apartado 1, el responsable del tratamiento facilitará al interesado, en el momento en que se obtengan los datos personales, la siguiente información necesaria para garantizar un tratamiento de datos leal y transparente:

- a) el plazo durante el cual se conservarán los datos personales o, cuando no sea posible, los criterios utilizados para determinar este plazo;
- b) la existencia del derecho a solicitar al responsable del tratamiento el acceso a los datos personales relativos al interesado, y su rectificación o supresión, o la limitación de su tratamiento, o a oponerse al tratamiento, así como el derecho a la portabilidad de los datos;



c) Tratamendua 6.1 artikuluko a) letran edo 9.2 artikuluko a) letran oinarrituta dagoenean, eskubidea duela adostasuna edozein unetan kentzeko, eta horrek ez duela inongo eraginik adostasuna kendu aurreko tratamenduaren zilegitasunean.

d) Eskubidea duela kontrol-agintaritzaren batean erreklamazio bat aurkezteko.

e) Datu pertsonalen komunikazioa lege- edo kontratu-eskakizuna den, edo kontratu bat sinatzeko betekizuna, eta interesduna behartuta dagoen ala ez datu pertsonalak ematera, eta jakitun dagoen datu horiek ez emateak zer nolako ondorioak izango dituen.

f) Erabaki automatizatuak daudela, profilak egitea barne, zeinak 22. artikuluko 1. eta 4. zerbaitetan aipatzen baitira, eta, kasu horietan behinik-behin, erabilitako logikaren gaineko informazio esanguratsua, eta interesdunarentzat tratamendu horrek duen garrantzia eta izan ditzakeen ondorioak.

3. Datu pertsonalen geroko tratamendua ez badator bat datuak biltzearen helburuarekin, helburu berri horri buruzko informazioa eta 2. zerbaitaren argitan beharrezko irizitako beste edozein informazio gehigarri helaraziko dio tratamenduaren arduradunak interesdunari, geroko tratamendu hori baino lehenago.

4. Artikulu honetako 1., 2. eta 3. zerbaitetako xedapenak ez dira aplikatuko interesdunak jadanik informazioa eskura badu eta horren jakitun den neurrian.

#### *14. artikulua*

### **Datu pertsonalak interesdunarengandik jaso ez direnean eman beharreko informazioa**

1. Datu pertsonalak interesdunarengandik jasotzen ez direnean, informazio hau jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunak:

a) Tratamenduaren arduradunaren identitatea

c) cuando el tratamiento esté basado en el artículo 6, apartado 1, letra a), o el artículo 9, apartado 2, letra a), la existencia del derecho a retirar el consentimiento en cualquier momento, sin que ello afecte a la licitud del tratamiento basado en el consentimiento previo a su retirada;

d) el derecho a presentar una reclamación ante una autoridad de control;

e) si la comunicación de datos personales es un requisito legal o contractual, o un requisito necesario para suscribir un contrato, y si el interesado está obligado a facilitar los datos personales y está informado de las posibles consecuencias de que no facilitar tales datos;

f) la existencia de decisiones automatizadas, incluida la elaboración de perfiles, a que se refiere el artículo 22, apartados 1 y 4, y, al menos en tales casos, información significativa sobre la lógica aplicada, así como la importancia y las consecuencias previstas de dicho tratamiento para el interesado.

3. Cuando el responsable del tratamiento proyecte el tratamiento ulterior de datos personales para un fin que no sea aquel para el que se recogieron, proporcionará al interesado, con anterioridad a dicho tratamiento ulterior, información sobre ese otro fin y cualquier información adicional pertinente a tenor del apartado 2.

4. Las disposiciones de los apartados 1, 2 y 3 no serán aplicables cuando y en la medida en que el interesado ya disponga de la información.

#### *Artículo 14*

### **Información que deberá facilitarse cuando los datos personales no se hayan obtenido del interesado**

1. Cuando los datos personales no se hayan obtenidos del interesado, el responsable del tratamiento le facilitará la siguiente información:

a) la identidad y los datos de contacto del



eta harremanetarako datuak eta, halakorik badago, haren ordezkariarenak.

b) Datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak, halakorik badago.

c) Datu pertsonalen tratamenduaren helburuak eta haren oinarri juridikoa.

d) Kasuan kasuko datu pertsonalen kategoriak.

e) Datu pertsonalen hartzaileak edo hartzaile-kategoriak, halakorik badago.

f) Halakorik badago, tratamenduaren arduradunak asmorik duen ala ez datu pertsonalak hirugarren herrialde bateko edo nazioarteko erakunde bateko hartzaile bati transferitzeko, eta Batzordearen egokitzapen-erabakirik badagoen ala ez, edo, 46. edo 47. artikuluetan edo 49.1 artikuluko bigarren paragrafoan adierazitako transferentzien kasuan, berme egokiekiko edo egokituekiko erreferentzia eta berme horien kopia bat lortzeko bitartekoekikoa edo haiek eskuragarri jarri diren tokiarekikoa.

2. Artikulu honen 1. zenbakian aipatutako informazioaz gainera, informazio hau helaraziko dio tratamenduaren arduradunak interesdunari datu pertsonalak eskuratzen dituen unean, zeina ezinbestekoa baita interesdunarekiko datu-tratamendu fidela eta gardena bermatzeko:

a) Datu pertsonalak noiz arte kontserbatuko diren edo, hori ezinezkoa bada, epe hori zehazteko zer irizpide erabiliko diren.

b) Tratamendua 6.1 artikuluko f) letran oinarritzen denean, tratamenduaren arduradunaren interes legítimoak edo hirugarren batenak.

c) Eskubidea duela berari buruzko datu pertsonalak irispidean izateko, zuzentzeko edo ezerezteko, tratamendua mugatzeko edo hari aurka egiteko, edo datuok transferitzeko.

responsable y, en su caso, de su representante;

b) los datos de contacto del delegado de protección de datos, en su caso;

c) los fines del tratamiento a que se destinan los datos personales, así como la base jurídica del tratamiento;

d) las categorías de datos personales de que se trate;

e) los destinatarios o las categorías de destinatarios de los datos personales, en su caso;

f) en su caso, la intención del responsable de transferir datos personales a un destinatario en un tercer país u organización internacional y la existencia o ausencia de una decisión de adecuación de la Comisión, o, en el caso de las transferencias indicadas en los artículos 46 o 47 o el artículo 49, apartado 1, párrafo segundo, referencia a las garantías adecuadas o apropiadas y a los medios para obtener una copia de ellas o al hecho de que se hayan prestado.

2. Además de la información mencionada en el apartado 1, el responsable del tratamiento facilitará al interesado la siguiente información necesaria para garantizar un tratamiento de datos leal y transparente respecto del interesado:

a) el plazo durante el cual se conservarán los datos personales o, cuando eso no sea posible, los criterios utilizados para determinar este plazo;

b) cuando el tratamiento se base en el artículo 6, apartado 1, letra f), los intereses legítimos del responsable del tratamiento o de un tercero;

c) la existencia del derecho a solicitar al responsable del tratamiento el acceso a los datos personales relativos al interesado, y su rectificación o supresión, o la limitación de su tratamiento, y a oponerse al tratamiento, así como el derecho a la portabilidad de los datos;



d) Tratamendua 6.1 artikuluko a) letran edo 9.2 artikuluko a) letran oinarrituta dagoenean, eskubidea duela adostasuna edozein unetan kentzeko, eta horrek ez duela inongo eraginik adostasuna kendu aurreko tratamenduaren zilegitasunean.

e) Eskubidea duela kontrol-agintaritzaren batean erreklamazio bat aurkezteko.

f) Datu pertsonalak zer iturrietatik datozen eta, hala dagokionean, irispide publikoko iturrietatik datozen.

g) Erabaki automatizatuak daudela, profilak egitea barne, zeinak 22. artikuluko 1. eta 4. zenbakietan aipatzen baitira, eta, kasu horietan behinik-behin, erabilitako logikaren gaineko informazio esanguratsua, eta interesdunarentzat tratamendu horrek duen garrantzia eta izan ditzakeen ondorioak.

3. Epe hauetan helaraziko du 1. eta 2. zenbakietako informazioa tratamenduaren arduradunak:

a) Arrazoizko epe batean, behin datu pertsonalak jaso ondoren, eta hilabete batean gehenez ere, kontuan hartuta datuon tratamendua zer baldintza espezifikotan gertatzen den.

b) Datu pertsonalak erabili behar badira interesdunari komunikazio bat egiteko, beranduenez ere interesdun horri lehenengo komunikazioa bidaltzen zaion unean.

c) Beste datu-hartzaile bati zabaltzekoak badira, beranduenez ere datu pertsonalak lehenbizikoz komunikatzen diren unean.

4. Datu pertsonalen geroko tratamendua ez badator bat datuak biltzearen helburuarekin, helburu berri horri buruzko informazioa eta 2. zenbakiaren argitan beharrezko iritzitako beste edozein informazio gehigarri helaraziko dio tratamenduaren arduradunak interesdunari, geroko tratamendu hori baino lehenago.

5. Kasu hauetan ez dira aplikatuko artikuluko honetako 1.etik 4.era bitarteko zenbakietako

d) cuando el tratamiento esté basado en el artículo 6, apartado 1, letra a), o el artículo 9, apartado 2, letra a), la existencia del derecho a retirar el consentimiento en cualquier momento, sin que ello afecte a la licitud del tratamiento basada en el consentimiento antes de su retirada;

e) el derecho a presentar una reclamación ante una autoridad de control;

f) la fuente de la que proceden los datos personales y, en su caso, si proceden de fuentes de acceso público;

g) la existencia de decisiones automatizadas, incluida la elaboración de perfiles, a que se refiere el artículo 22, apartados 1 y 4, y, al menos en tales casos, información significativa sobre la lógica aplicada, así como la importancia y las consecuencias previstas de dicho tratamiento para el interesado.

3. El responsable del tratamiento facilitará la información indicada en los apartados 1 y 2:

a) dentro de un plazo razonable, una vez obtenidos los datos personales, y a más tardar dentro de un mes, habida cuenta de las circunstancias específicas en las que se traten dichos datos;

b) si los datos personales han de utilizarse para comunicación con el interesado, a más tardar en el momento de la primera comunicación a dicho interesado, o

c) si está previsto comunicarlos a otro destinatario, a más tardar en el momento en que los datos personales sean comunicados por primera vez.

4. Cuando el responsable del tratamiento proyecte el tratamiento ulterior de los datos personales para un fin que no sea aquel para el que se obtuvieron, proporcionará al interesado, antes de dicho tratamiento ulterior, información sobre ese otro fin y cualquier otra información pertinente indicada en el apartado 2.

5. Las disposiciones de los apartados 1 a 4 no serán aplicables cuando y en la medida en





xedapenak:

- a) Interesdunak jadanik informazioa eskura duenean.
- b) Informazio horren komunikazioa ezinezkoa denean edo neurritz kanpoko ahalegina eskatzen duenean, bereziki tratamenduaren helburua bada interes publikoaren izenean artxibatzea, edo ikerketa zientifiko, historiko edo estatistikoa, 89.1 artikuluan adierazitako baldintza eta bermeei atxikiz, edo artikuluko honetako 1. zenbakiko betekizunak ezinezko egiten duenean edo nabarmen galarazten duenean tratamenduaren helburuak lortzea. Kasu horietan, tratamenduaren arduradunak behar diren neurriak hartuko ditu interesdunaren eskubideak, askatasunak eta interes legitimoak babesteko, baita informazioa jakitera eman behar badu ere.
- c) Informazioa lortzea edo komunikatzea berariaz ezarria dagoenean tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean, zeinak interesdunaren interes legitimoak babesteko neurri egokiak xedatzen baititu.
- d) Datu pertsonalek konfidentzialak izaten jarraitu behar dutenean, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak araututako sekretu profesionalari buruzko betebeharrak batean oinarrituta, estatutu etako sekretu-betebeharra barne.

### *15. artikulua*

#### **Interesdunaren irispide-eskubidea**

1. Interesdunak eskubidea izango du tratamenduaren arduradunak egiazta diezaion berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egiten ari den ala ez eta, hala bada, datu pertsonalak eta honako informazio hau irispidean izateko eskubidea ere:
  - a) Tratamenduaren helburuak.
  - b) Kasuan kasuko datu pertsonalen kategoriak.
  - c) Datu pertsonalak zer hartzailerari edo zer

que:

- a) el interesado ya disponga de la información;
- b) la comunicación de dicha información resulte imposible o suponga un esfuerzo desproporcionado, en particular para el tratamiento con fines de archivo en interés público, fines de investigación científica o histórica o fines estadísticos, a reserva de las condiciones y garantías indicadas en el artículo 89, apartado 1, o en la medida en que la obligación mencionada en el apartado 1 del presente artículo pueda imposibilitar u obstaculizar gravemente el logro de los objetivos de tal tratamiento. En tales casos, el responsable adoptará medidas adecuadas para proteger los derechos, libertades e intereses legítimos del interesado, inclusive haciendo pública la información;
- c) la obtención o la comunicación esté expresamente establecida por el Derecho de la Unión o de los Estados miembros que se aplique al responsable del tratamiento y que establezca medidas adecuadas para proteger los intereses legítimos del interesado, o
- d) cuando los datos personales deban seguir teniendo carácter confidencial sobre la base de una obligación de secreto profesional regulada por el Derecho de la Unión o de los Estados miembros, incluida una obligación de secreto de naturaleza estatutaria.

### *Artículo 15*

#### **Derecho de acceso del interesado**

1. El interesado tendrá derecho a obtener del responsable del tratamiento confirmación de si se están tratando o no datos personales que le conciernen y, en tal caso, derecho de acceso a los datos personales y a la siguiente información:
  - a) los fines del tratamiento;
  - b) las categorías de datos personales de que se trate;
  - c) los destinatarios o las categorías de



hartzaile-kategoriari komunikatu zaizkion edo komunikatuko zaizkion, bereziki hirugarren herrialde bateko hartzaileak edo nazioarteko erakundeak badira.

d)Ahal bada, datu pertsonalak noiz arte kontserbatuko diren edo, hori ezinezkoa bada, epe hori zehazteko zer irizpide erabiliko diren.

e)Eskubidea duela tratamenduaren arduradunari eskatzeko datu pertsonalak zuzendu edo ezereztu ditzan, edo tratamendua mugatu dezan, baita tratamenduaren aurka egiteko ere.

f)Eskubidea duela kontrol-agintaritza batean erreklamazio bat aurkezteko.

g)Datu pertsonalak interesdunarengandik jaso ez direnean, haien jatorriari buruzko edozein informazio.

h)Erabaki automatizatuak daudela, profilak egitea barne, zeinak 22. artikuluko 1. eta 4. zenbakietan aipatzen baitira, eta, kasu horietan behinik-behin, erabilitako logikaren gaineko informazio esanguratsua, eta interesdunarentzat tratamendu horrek duen garrantzia eta izan ditzakeen ondorioak.

2. Datu pertsonalak hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitzen direnean, interesdunak eskubidea izango du transferentzia horren berme egokiez informazioa jasotzeko, 46. artikulua araberan.

3. Tratamenduaren arduradunak tratamenduko datu pertsonalen kopia bat emango du. Interesdunak beste kopiarik eskatzen badu, arrazoizko kanon bat jaso ahal izango du tratamenduaren arduradunak, kostu administratiboen ordainetan. Interesdunak eskabidea bitarteko elektronikoen bidez aurkezten duenean, informazioa erabilera orokorreko formatu elektronikoen baten bidez bidaliko da, noiz eta interesdunak ez duen eskatzen beste moduren batez bidaltzeko.

4. Aurreko 3. zenbakian kopia bat jasotzeari buruz aipatutako eskubideak ez du eragin negatiborik sortuko beste batzuen eskubide

destinatarios a los que se comunicaron o serán comunicados los datos personales, en particular destinatarios en terceros u organizaciones internacionales;

d)de ser posible, el plazo previsto de conservación de los datos personales o, de no ser posible, los criterios utilizados para determinar este plazo;

e)la existencia del derecho a solicitar del responsable la rectificación o supresión de datos personales o la limitación del tratamiento de datos personales relativos al interesado, o a oponerse a dicho tratamiento;

f)el derecho a presentar una reclamación ante una autoridad de control;

g)cundo los datos personales no se hayan obtenido del interesado, cualquier información disponible sobre su origen;

h)la existencia de decisiones automatizadas, incluida la elaboración de perfiles, a que se refiere el artículo 22, apartados 1 y 4, y, al menos en tales casos, información significativa sobre la lógica aplicada, así como la importancia y las consecuencias previstas de dicho tratamiento para el interesado.

2. Cuando se transfieran datos personales a un tercer país o a una organización internacional, el interesado tendrá derecho a ser informado de las garantías adecuadas en virtud del artículo 46 relativas a la transferencia.

3. El responsable del tratamiento facilitará una copia de los datos personales objeto de tratamiento. El responsable podrá percibir por cualquier otra copia solicitada por el interesado un canon razonable basado en los costes administrativos. Cuando el interesado presente la solicitud por medios electrónicos, y a menos que este solicite que se facilite de otro modo, la información se facilitará en un formato electrónico de uso común.

4. El derecho a obtener copia mencionado en el apartado 3 no afectará negativamente a los derechos y libertades de otros.



eta askatasunetan.

### **3. atala** **Zuzenketa eta ezereztea**

#### *16. artikulua*

#### **Zuzentzeko eskubidea**

Interesdunak eskubidea izango du berari buruz dauden datu pertsonal okerrak atzerapen bidegaberik gabe zuzendu ditzan tratamendu-arduradunak. Tratamenduaren helburuak kontuan hartuta, interesdunak eskubidea izango du berari buruz dauden datu pertsonal osagabeak osatu daitezen, baita adierazpen gehigarri baten bidez ere.

#### *17. artikulua*

#### **Ezerezteko eskubidea («ahaztua izateko eskubidea»)**

1. Interesdunak eskubidea izango du berari buruzko datu pertsonalak atzerapen bidegaberik gabe ezereztu ditzan tratamendu-arduradunak, zeina behartuta egongo baita datu pertsonalak atzerapen bidegaberik gabe ezereztera, baldintza hauetako bat gertatzen denean:

- a) Datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak, bildu zirenean edo beste modu batez tratatu zirenean zeuden helburuen argitan.
- b) Interesdunak bertan behera uzten badu tratamenduaren oinarria den 6.1 artikuluko a) letraren edo 9.2 artikuluko a) letraren araberako adostasuna, eta tratamenduak ez badu beste oinarri juridikorik.
- c) Interesdunak tratamenduaren aurka egiten badu 21.1 artikuluari jarraituz, eta gainera ez badago tratamendua gauzatzeko beste arrazoi legitimorik, edo interesdunak tratamenduaren aurka egiten badu 21.2 artikuluari jarraituz.
- d) Datu pertsonalen tratamendua legez kontra egin bada.

### **Sección 3** **Rectificación y supresión**

#### *Artículo 16*

#### **Derecho de rectificación**

El interesado tendrá derecho a obtener sin dilación indebida del responsable del tratamiento la rectificación de los datos personales inexactos que le conciernan. Teniendo en cuenta los fines del tratamiento, el interesado tendrá derecho a que se completen los datos personales que sean incompletos, inclusive mediante una declaración adicional.

#### *Artículo 17*

#### **Derecho de supresión («el derecho al olvido»)**

1. El interesado tendrá derecho a obtener sin dilación indebida del responsable del tratamiento la supresión de los datos personales que le conciernan, el cual estará obligado a suprimir sin dilación indebida los datos personales cuando concurra alguna de las circunstancias siguientes:

- a) los datos personales ya no sean necesarios en relación con los fines para los que fueron recogidos o tratados de otro modo;
- b) el interesado retire el consentimiento en que se basa el tratamiento de conformidad con el artículo 6, apartado 1, letra a), o el artículo 9, apartado 2, letra a), y este no se base en otro fundamento jurídico;
- c) el interesado se oponga al tratamiento con arreglo al artículo 21, apartado 1, y no prevalezcan otros motivos legítimos para el tratamiento, o el interesado se oponga al tratamiento con arreglo al artículo 21, apartado 2;
- d) los datos personales hayan sido tratados ilícitamente;



e) Datu pertsonalak ezereztu behar badira, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean ezarritako lege-betebehar baten indarrez.

f) Datu pertsonalak jaso badira 8.1 artikuluan aipaturiko informazioaren gizarteko zerbitzuen eskaintzaren ingurumarian.

2. Tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak publiko egiten dituzenean eta, artikuluko honetako 1. zenbakiaren indarrez, datuok ezereztu behar dituzenean, eskura duen teknologia eta hura erabiltzeko kostua kontuan hartuta, arrazoizko neurriak hartuko ditu, neurri teknikoak barne, datu pertsonalen tratamendua egiten ari diren arduradunak jakitun ipintzeko interesdunak egin duen eskabidez datu pertsonal horiekiko lotura oro edo kopia edo erreplika oro ezereztu daitezzen.

3. Artikulu honetako 1. eta 2. zenbakiak ez dira aplikatuko arrazoi hauek direla-eta tratamendua beharrezkoa bada:

a) Adierazpen- eta informazio-askatasunerako eskubidea egikaritzeko.

b) Tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean ezarritako lege-betebehar bat konplitzeko, edo interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

c) Osasun publikoaren alorreko interes publikoari buruzko arrazoiak direla medio, 9.2 artikuluko h) eta i) letretan eta 9.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

d) Tratamenduaren helburua bada interes publikoaren izenean artxibatzea, edo ikerketa zientifikoa, historikoa edo estatistikoa egitea, 89.1 artikulua arabera, noiz eta artikuluko honetako 1. zenbakiko eskubideak ezinezko egiten duen edo nabarmen galarazten duen tratamenduaren helburuak lortzea.

e) Erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko

e) los datos personales deban suprimirse para el cumplimiento de una obligación legal establecida en el Derecho de la Unión o de los Estados miembros que se aplique al responsable del tratamiento;

f) los datos personales se hayan obtenido en relación con la oferta de servicios de la sociedad de la información mencionados en el artículo 8, apartado 1.

2. Cuando haya hecho públicos los datos personales y esté obligado, en virtud de lo dispuesto en el apartado 1, a suprimir dichos datos, el responsable del tratamiento, teniendo en cuenta la tecnología disponible y el coste de su aplicación, adoptará medidas razonables, incluidas medidas técnicas, con miras a informar a los responsables que estén tratando los datos personales de la solicitud del interesado de supresión de cualquier enlace a esos datos personales, o cualquier copia o réplica de los mismos.

3. Los apartados 1 y 2 no se aplicarán cuando el tratamiento sea necesario:

a) para ejercer el derecho a la libertad de expresión e información;

b) para el cumplimiento de una obligación legal que requiera el tratamiento de datos impuesta por el Derecho de la Unión o de los Estados miembros que se aplique al responsable del tratamiento, o para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable;

c) por razones de interés público en el ámbito de la salud pública de conformidad con el artículo 9, apartado 2, letras h) e i), y apartado 3;

d) con fines de archivo en interés público, fines de investigación científica o histórica o fines estadísticos, de conformidad con el artículo 89, apartado 1, en la medida en que el derecho indicado en el apartado 1 pudiera hacer imposible u obstaculizar gravemente el logro de los objetivos de dicho tratamiento, o

e) para la formulación, el ejercicio o la



edo aldezteko.

### *18. artikulua*

#### **Tratamendua mugatzeko eskubidea**

1. Interesdunak eskubidea izango du tratamenduaren arduradunak datuen tratamendua mugatu dezan, baldintza hauetako bat gertatzen denean:

a) Interesdunak datu pertsonalen zehaztasunaren aurka egiten badu, tratamenduaren arduradunak datuon zehaztasuna egiaztatzeko adinako epe batez.

b) Tratamendua legez kontrakoa bada eta interesdunak datu pertsonalak ezereztearen aurka egiten badu eta, ordainetan, haien erabilera mugatzeko eskatu.

c) Arduradunak jadanik behar ez baditu datu pertsonalak tratamenduaren helburuei begira, baina interesdunak bai, erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.

d) Interesdunak 21.1 artikuluari jarraituz tratamenduaren aurka egin badu, eta arduradunaren arrazoi legítimoak interesdunaren gaintik dauden ala ez egiaztatzen den bitartean.

2. Artikulu honetako 1. zenbakiari jarraituz datu pertsonalen tratamendua mugatu bada, datuon tratamendua –kontserbazioa salbu– egin ahal izango da soil-soilik interesdunak bere adostasuna agertzen badu, edo erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko, edo beste pertsona fisiko edo juridiko baten eskubideak babesteari begira, edo Batasunaren edo estatu kide jakin baten interes publiko garrantzitsuari buruzko arrazoiak direla eta.

3. Artikulu honetako 1. zenbakiaren arabera tratamenduaren mugatzea lortu duen interesduna jakitun ipiniko du tratamenduaren arduradunak mugatzea amaitu baino lehen.

defensa de reclamaciones.

### *Artículo 18*

#### **Derecho a la limitación del tratamiento**

1. El interesado tendrá derecho a obtener del responsable del tratamiento la limitación del tratamiento de los datos cuando se cumpla alguna de las condiciones siguientes:

a) el interesado impugne la exactitud de los datos personales, durante un plazo que permita al responsable verificar la exactitud de los mismos;

b) el tratamiento sea ilícito y el interesado se oponga a la supresión de los datos personales y solicite en su lugar la limitación de su uso;

c) el responsable ya no necesite los datos personales para los fines del tratamiento, pero el interesado los necesite para la formulación, el ejercicio o la defensa de reclamaciones;

d) el interesado se haya opuesto al tratamiento en virtud del artículo 21, apartado 1, mientras se verifica si los motivos legítimos del responsable prevalecen sobre los del interesado.

2. Cuando el tratamiento de datos personales se haya limitado en virtud del apartado 1, dichos datos solo podrán ser objeto de tratamiento, con excepción de su conservación, con el consentimiento del interesado o para la formulación, el ejercicio o la defensa de reclamaciones, o con miras a la protección de los derechos de otra persona física o jurídica o por razones de interés público importante de la Unión o de un determinado Estado miembro.

3. Todo interesado que haya obtenido la limitación del tratamiento con arreglo al apartado 1 será informado por el responsable antes del levantamiento de dicha limitación.



### *19. artikulua*

#### **Datu pertsonalak zuzendu edo ezereztu direla edo tratamendua mugatu dela jakinarazteko betebeharra**

116., 17.1 eta 18. artikuluen arabera datu pertsonalak zuzentzen edo ezereztzen badira edo haien tratamendua mugatzen bada, horren berri emango die tratamenduaren arduradunak datu pertsonalen hartzaile guztiei, salbu eta ezinezkoa bada edo neurriz kanpoko ahalegina eskatzen bada. Hartzaile horiek zein diren jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunak interesdunari, azken horrek eskatuz gero.

### *20. artikulua*

#### **Datuak transferitzeko eskubidea**

1. Interesdunak eskubidea izango du tratamendu-arduradun bati helarazi dizkion datu pertsonalak erabilera orokorra eta irakurketa mekanikoa duen formatu egituratu batean jasotzeko, bai eta beste tratamendu-arduradun bati bidaltzeko ere, datuak jaso dituen arduradunak oztoporik jarri gabe, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

a) Tratamendua adostasunean oinarrituta badago, 6.1 artikuluko a) letrari edo 9.2 artikuluko a) letrari jarraituz, edo kontratu batean, 6.1 artikuluko b) letrari jarraituz.

b) Tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egiten bada.

2. Interesdunak 1. zenbakian jasota dagoen datuak transferitzeko eskubidea egikaritzen duenean, eskubidea izango du datu pertsonalak zuzenean arduradun batengandik bestearengana transmiti daitezen, teknikoki posible bada.

3. Artikulu honetako 1. zenbakian aipatutako eskubidea egikaritzeak ez du ezertan eragotziko 17. artikuluan xedatutakoa betetzea. Ez da eskubide hori aplikatuko tratamendua beharrezkoa denean eginkizun

### *Artículo 19*

#### **Obligación de notificación relativa a la rectificación o supresión de datos personales o la limitación del tratamiento**

El responsable del tratamiento comunicará cualquier rectificación o supresión de datos personales o limitación del tratamiento efectuada con arreglo al artículo 16, al artículo 17, apartado 1, y al artículo 18 a cada uno de los destinatarios a los que se hayan comunicado los datos personales, salvo que sea imposible o exija un esfuerzo desproporcionado. El responsable informará al interesado acerca de dichos destinatarios, si este así lo solicita.

### *Artículo 20*

#### **Derecho a la portabilidad de los datos**

1. El interesado tendrá derecho a recibir los datos personales que le incumban, que haya facilitado a un responsable del tratamiento, en un formato estructurado, de uso común y lectura mecánica, y a transmitirlos a otro responsable del tratamiento sin que lo impida el responsable al que se los hubiera facilitado, cuando:

a) el tratamiento esté basado en el consentimiento con arreglo al artículo 6, apartado 1, letra a), o el artículo 9, apartado 2, letra a), o en un contrato con arreglo al artículo 6, apartado 1, letra b), y

b) el tratamiento se efectúe por medios automatizados.

2. Al ejercer su derecho a la portabilidad de los datos de acuerdo con el apartado 1, el interesado tendrá derecho a que los datos personales se transmitan directamente de responsable a responsable cuando sea técnicamente posible.

3. El ejercicio del derecho mencionado en el apartado 1 del presente artículo se entenderá sin perjuicio del artículo 17. Tal derecho no se aplicará al tratamiento que sea necesario para el cumplimiento de una misión realizada



bat betetzeko interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean.

4. Artikulu honetako 1. zenbakian aipatutako eskubideak ez du eragin negatiborik sortuko beste batzuen eskubide eta askatasunetan.

#### **4. atala**

### **Aurka egiteko eskubidea eta banakako erabaki automatizatuak**

#### *21. artikulua*

#### **Aurka egiteko eskubidea**

1. Bere egoera partikularra dela eta, interesdunak eskubidea izango du, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, tratamendu hori oinarritzen bada 6.1 artikuluko e) edo f) letran xedatutakoan, baita xedapen horietan oinarrituriko profilen elaborazioaren aurka ere. Tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak tratatzeari utziko dio, noiz eta ez duen egiaztatzen interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen ginetik arrazoi legitimo larriak daudela tratamenduari eusteko, edo erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.

2. Datu pertsonalen tratamenduaren helburua marketin zuzena bada, interesdunak eskubidea izango du, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko; baita xedapen horietan oinarrituriko profilen elaborazioaren aurka ere, baldin eta marketin horrekin lotuta badago.

3. Interesdunak marketin zuzena helburu duen tratamenduaren aurka egiten duenean, bertan behera geldituko da helburu horiei begirako datu pertsonalen tratamendua.

4. Interesdunari lehenengo komunikazioa bidaltzen zaion unean, beranduenez, berenberegiratu jakinaraziko zaio interesdunari 1. eta 2. zenbakietan adierazitako eskubidea, argiro eta beste edozein informaziotatik berezita.

en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento.

4. El derecho mencionado en el apartado 1 no afectará negativamente a los derechos y libertades de otros.

#### **Sección 4**

### **Derecho de oposición y decisiones individuales automatizadas**

#### *Artículo 21*

#### **Derecho de oposición**

1. El interesado tendrá derecho a oponerse en cualquier momento, por motivos relacionados con su situación particular, a que datos personales que le conciernan sean objeto de un tratamiento basado en lo dispuesto en el artículo 6, apartado 1, letras e) o f), incluida la elaboración de perfiles sobre la base de dichas disposiciones. El responsable del tratamiento dejará de tratar los datos personales, salvo que acredite motivos legítimos imperiosos para el tratamiento que prevalezcan sobre los intereses, los derechos y las libertades del interesado, o para la formulación, el ejercicio o la defensa de reclamaciones.

2. Cuando el tratamiento de datos personales tenga por objeto la mercadotecnia directa, el interesado tendrá derecho a oponerse en todo momento al tratamiento de los datos personales que le conciernan, incluida la elaboración de perfiles en la medida en que esté relacionada con la citada mercadotecnia.

3. Cuando el interesado se oponga al tratamiento con fines de mercadotecnia directa, los datos personales dejarán de ser tratados para dichos fines.

4. A más tardar en el momento de la primera comunicación con el interesado, el derecho indicado en los apartados 1 y 2 será mencionado explícitamente al interesado y será presentado claramente y al margen de



5. Informazioaren gizarteko zerbitzuen erabileraren esparruan, eta 2002/58/EE Zuzentarauak xedatzen duena gorabehera, interesduna aurka egiteko eskubideaz baliatu ahalko da, espezifikazio teknikoak erabiltzen dituzten bitarteko automatizatuen bidez.

6. Erregelamendu honetako 89.1 artikulua arabera datu pertsonalen tratamenduaren helburua bada ikerketa zientifikoa, historikoa edo estatistikoa, interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, salbu eta tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

## *22. artikulua*

### **Banakako erabaki automatizatuak, profilak egitea barne**

1. Interesdunek eskubidea izango dute tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta beraiengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izateko, profilak egitea barne.

2. Aurreko 1. zenbakia ez da aplikatuko, baldin eta erabakia:

a) Beharrezkoa bada interesdunaren eta tratamenduaren arduradunaren artean kontratu bat egiteko edo betearazteko.

b) Tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak baimentzen badu, zeinak interesdunaren eskubideak, askatasunak eta interes legitimoak babesteko neurri egokiak xedatzen baititu.

c) Oinarritzen bada interesdunak berariaz emandako adostasunean.

3. Aurreko 2. zenbakiko a) eta c) letretan aipatzen diren kasuetan, tratamenduaren arduradunak behar diren neurriak hartuko ditu interesdunaren eskubideak, askatasunak eta interes legitimoak babesteko; honako hauek,

cualquier otra información.

5. En el contexto de la utilización de servicios de la sociedad de la información, y no obstante lo dispuesto en la Directiva 2002/58/CE, el interesado podrá ejercer su derecho a oponerse por medios automatizados que apliquen especificaciones técnicas.

6. Cuando los datos personales se traten con fines de investigación científica o histórica o fines estadísticos de conformidad con el artículo 89, apartado 1, el interesado tendrá derecho, por motivos relacionados con su situación particular, a oponerse al tratamiento de datos personales que le conciernan, salvo que sea necesario para el cumplimiento de una misión realizada por razones de interés público.

## *Artículo 22*

### **Decisiones individuales automatizadas, incluida la elaboración de perfiles**

1. Todo interesado tendrá derecho a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar.

2. El apartado 1 no se aplicará si la decisión:

a) es necesaria para la celebración o la ejecución de un contrato entre el interesado y un responsable del tratamiento;

b) está autorizada por el Derecho de la Unión o de los Estados miembros que se aplique al responsable del tratamiento y que establezca asimismo medidas adecuadas para salvaguardar los derechos y libertades y los intereses legítimos del interesado, o

c) se basa en el consentimiento explícito del interesado.

3. En los casos a que se refiere el apartado 2, letras a) y c), el responsable del tratamiento adoptará las medidas adecuadas para salvaguardar los derechos y libertades y los intereses legítimos del interesado, como





gutxienez: arduradunaren aldetik pertsona baten esku-hartzea jasotzeko eskubidea, beraren ikuspuntua adierazteko eskubidea eta erabakiaren kontra egiteko eskubidea.

4. Aurreko 2. zenbakian aipatzen diren erabakiak ez dira oinarrituko 9.1 artikuluan jaso diren datu pertsonalen kategoria berezietan, salbu eta 9.2 artikuluko a) edo g) letra aplikatzen bada eta interesdunaren eskubideak, askatasunak eta interes legitimoak babesteko neurri egokiak hartu badira.

## **5. atala**

### **Mugak**

#### *23. artikulua*

### **Mugak**

1. Tratamenduaren arduradunari edo eragileari aplikatzen zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak mugak jarri ahal izango dizkio, legegintzako neurrien bitartez, 12. artikulutik 22.era bitartean eta 34.ean ezarritako betebeharrak eta eskubideen irismenari; baita 5. artikuluan ezarritakoenari ere, bertako xedapenak bat datozen neurrian 12.etik 22.era bitarteko artikuluetan jasotzen diren eskubide eta betebeharrekin, betiere muga horiek errespetatzen badute oinarritzko eskubide eta askatasunen muina eta neurriak nahitaezkoak eta proportzionalak baldin badira gizarte demokratiko batean helburu hauek babesteko:

- a) Estatuaren segurtasuna.
- b) Defentsa.
- c) Segurtasun publikoa.
- d) Arau-hauste penalak prebenitzea, ikertzea, detektatzea edo epaitzea, edo zehapen penalak betearaztea, bai eta segurtasun publikoaren aurkako mehatxuetatik babestea eta mehatxuok prebenitzea ere.
- e) Batasunaren edo estatu kide baten interes orokorreko beste helburu garrantzitsu batzuk, bereziki Batasunaren edo estatu kide baten interes ekonomiko edo

mínimo el derecho a obtener intervención humana por parte del responsable, a expresar su punto de vista y a impugnar la decisión.

4. Las decisiones a que se refiere el apartado 2 no se basarán en las categorías especiales de datos personales contempladas en el artículo 9, apartado 1, salvo que se aplique el artículo 9, apartado 2, letra a) o g), y se hayan tomado medidas adecuadas para salvaguardar los derechos y libertades y los intereses legítimos del interesado.

## **Sección 5**

### **Limitaciones**

#### *Artículo 23*

### **Limitaciones**

1. El Derecho de la Unión o de los Estados miembros que se aplique al responsable o el encargado del tratamiento podrá limitar, a través de medidas legislativas, el alcance de las obligaciones y de los derechos establecidos en los artículos 12 a 22 y el artículo 34, así como en el artículo 5 en la medida en que sus disposiciones se correspondan con los derechos y obligaciones contemplados en los artículos 12 a 22, cuando tal limitación respete en lo esencial los derechos y libertades fundamentales y sea una medida necesaria y proporcionada en una sociedad democrática para salvaguardar:

- a) la seguridad del Estado;
- b) la defensa;
- c) la seguridad pública;
- d) la prevención, investigación, detección o enjuiciamiento de infracciones penales o la ejecución de sanciones penales, incluida la protección frente a amenazas a la seguridad pública y su prevención;
- e) otros objetivos importantes de interés público general de la Unión o de un Estado miembro, en particular un interés económico o financiero importante de la



finantzario garrantzitsu bat, baita eremu fiskalean, aurrekontu- eta diru-eremuan, osasun publikoan eta gizarte-segurantzan ere.

f) Independentzia judizialaren eta prozedura judizialen babesa.

g) Araututa dauden lanbideetako arau deontologikoen urraketak prebenitzea, ikertzea, detektatzea edo epaitzea.

h) Aurreko a) letratik e) arte eta g) letran jasotako kasuetan, agintaritza publikoa, noizean behin bada ere, erabiltzearekin lotutako gainbegiratze, ikuskatze edo arautze zereginak.

i) Interesdunaren babesa edo beste batzuen eskubide eta askatasunena.

j) Demanda zibilen betearazpena.

2. Bereziki, aurreko 1. zenbakian adierazitako legegintzako neurri guztiek arlo hauei buruzko xedapen espezifikoak, gutxienez, jasoko dituzte:

a) Tratamenduaren edo tratamendu-kategorien helburua.

b) Kasuan kasuko datu pertsonalen kategoriak.

c) Ezarritako mugen irismena.

d) Legez kontrako edo abusuzko irispide edo transferentziak.

e) Arduraduna edo arduradun-kategoriak zehaztea.

f) Kontserbatzeko epeak eta berme aplikagarriak, kontuan hartuta tratamenduaren edo tratamendu-kategorien nolakotasuna, irismena eta helburuak.

g) Interesdunen eskubide eta askatasunetarako arriskuak.

h) Interesdunek mugari buruzko informazioa jasotzeko duten eskubidea, noiz eta horrek ez dion kalterik egiten mugaren beraren helburuari.

Unión o de un Estado miembro, inclusive en los ámbitos fiscal, presupuestario y monetario, la sanidad pública y la seguridad social;

f) la protección de la independencia judicial y de los procedimientos judiciales;

g) la prevención, la investigación, la detección y el enjuiciamiento de infracciones de normas deontológicas en las profesiones reguladas;

h) una función de supervisión, inspección o reglamentación vinculada, incluso ocasionalmente, con el ejercicio de la autoridad pública en los casos contemplados en las letras a) a e) y g);

i) la protección del interesado o de los derechos y libertades de otros;

j) la ejecución de demandas civiles.

2. En particular, cualquier medida legislativa indicada en el apartado 1 contendrá como mínimo, en su caso, disposiciones específicas relativas a:

a) la finalidad del tratamiento o de las categorías de tratamiento;

b) las categorías de datos personales de que se trate;

c) el alcance de las limitaciones establecidas;

d) las garantías para evitar accesos o transferencias ilícitos o abusivos;

e) la determinación del responsable o de categorías de responsables;

f) los plazos de conservación y las garantías aplicables habida cuenta de la naturaleza alcance y objetivos del tratamiento o las categorías de tratamiento;

g) los riesgos para los derechos y libertades de los interesados, y

h) el derecho de los interesados a ser informados sobre la limitación, salvo si puede ser perjudicial a los fines de esta.



#### **IV. KAPITULUA**

##### ***Tratamenduaren arduraduna eta tratamendu-eragilea***

#### **1. atala**

#### **Betebehar orokorrak**

##### *24. artikulua*

#### **Tratamenduaren arduradunaren erantzukizuna**

1. Tratamenduaren nolakotasuna, eremua, testuingurua eta helburuak kontuan hartuta, bai eta pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako dauden askotariko probabilitate eta larritasun-mailako arriskuak ere, tratamenduaren arduradunak arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartuko ditu, tratamendua erregelamendu honekin bat datorrela bermatzeko eta frogatu ahal izateko. Neurriok beharrezkoa denean berrikusi eta eguneratuko dira.

2. Aurreko 1. zenbakiko neurriak tratamenduaren jardueren araberakoak direnean, haien artean sartuko da tratamenduaren arduradunak datuak babesteko politika egokiak aplikatzea.

3. Erregelamendu honetako 40. artikuluari jarraituz onartutako jokabide-kodeei atxikitzea edo 42. artikuluari jarraituz onartutako ziurtapen-mekanismo bati atxikitzea baliagarria izan daiteke tratamenduaren arduradunak eginbeharrak betetzen dituela frogatzeko.

##### *25. artikulua*

#### **Datuen babesa, diseinutik abiatuta eta lehenetsita**

1. Tratamenduaren arduradunak, kontuan hartuta eskura duen puntako teknologia eta aplikazioaren kostua, bai eta tratamenduaren nolakotasuna, eremua, testuingurua eta

#### **CAPÍTULO IV**

##### ***Responsable del tratamiento y encargado del tratamiento***

#### **Sección 1**

#### **Obligaciones generales**

##### *Artículo 24*

#### **Responsabilidad del responsable del tratamiento**

1. Teniendo en cuenta la naturaleza, el ámbito, el contexto y los fines del tratamiento así como los riesgos de diversa probabilidad y gravedad para los derechos y libertades de las personas físicas, el responsable del tratamiento aplicará medidas técnicas y organizativas apropiadas a fin de garantizar y poder demostrar que el tratamiento es conforme con el presente Reglamento. Dichas medidas se revisarán y actualizarán cuando sea necesario.

2. Cuando sean proporcionadas en relación con las actividades de tratamiento, entre las medidas mencionadas en el apartado 1 se incluirá la aplicación, por parte del responsable del tratamiento, de las oportunas políticas de protección de datos.

3. La adhesión a códigos de conducta aprobados a tenor del artículo 40 o a un mecanismo de certificación aprobado a tenor del artículo 42 podrán ser utilizados como elementos para demostrar el cumplimiento de las obligaciones por parte del responsable del tratamiento.

##### *Artículo 25*

#### **Protección de datos desde el diseño y por defecto**

1. Teniendo en cuenta el estado de la técnica, el coste de la aplicación y la naturaleza, ámbito, contexto y fines del tratamiento, así como los riesgos de diversa



helburuak ere, eta halaber pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako tratamenduak izan ditzakeen askotariko probabilitate eta larritasun-mailako arriskuak, arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartuko ditu, hala nola seudonimizazioa, bai tratamendurako neurriak erabakitzeko unean bai tratamendua bera gauzatzen denean ere. Neurri horiek datuak babesteari buruzko printzipioak –datuak minimizatzea, adibidez– egiazki aplikatzeko sortuak dira, eta tratamenduan behar diren bermeak integrazteko ere bai, hartara erregelamendu honetako eskakizunak betetzeko eta interesdunen eskubideak babesteko.

2. Tratamenduaren arduradunak arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartuko ditu bermatzeko datu pertsonalen tratamenduak, lehenetsunez, har ez ditzan tratamenduaren helburu espezifiko bakoitzerako beharrezkoak diren datuak baino. Betebehar hori jasotzen diren datu pertsonalen kopuruari aplikatuko zaio, baita tratamenduaren hedadurari, kontserbatzeko epeari eta haiek irispidean jartzeari ere. Neurri horiei esker, bereziki, datu pertsonalak ez dira egongo, lehenetsunez, pertsona fisikoen kopuru zehaztugabe baten irispidean, pertsonaren esku-hartzerik gabe.

3. Erregelamendu honetako 42. artikulua arabera onartutako ziurtapen-mekanismoa erabili ahal izango da artikulua honetako 1. eta 2. zenbakietako eginbeharrak bete direla egiaztatzeko.

## *26. artikulua*

### **Tratamenduaren erantzunkideak**

1. Bi arduradunek edo gehiagok tratamenduaren helburuak eta bitartekoak batera zehazten dituztenean, tratamenduaren erantzunkidetzat joko dira. Erantzunkideek gardentasunez eta elkarren arteko akordio baten bitartez erabakiko dute zein diren bakoitzaren erantzukizunak erregelamendu honetan ezarritako betekizunei dagokienez, bereziki interesdunen eskubideak egikaritzearen eremuan eta 13. eta 14. artikuluetan aipatzen diren informazioa

probabilidad y gravedad que entraña el tratamiento para los derechos y libertades de las personas físicas, el responsable del tratamiento aplicará, tanto en el momento de determinar los medios de tratamiento como en el momento del propio tratamiento, medidas técnicas y organizativas apropiadas, como la seudonimización, concebidas para aplicar de forma efectiva los principios de protección de datos, como la minimización de datos, e integrar las garantías necesarias en el tratamiento, a fin de cumplir los requisitos del presente Reglamento y proteger los derechos de los interesados.

2. El responsable del tratamiento aplicará las medidas técnicas y organizativas apropiadas con miras a garantizar que, por defecto, solo sean objeto de tratamiento los datos personales que sean necesarios para cada uno de los fines específicos del tratamiento. Esta obligación se aplicará a la cantidad de datos personales recogidos, a la extensión de su tratamiento, a su plazo de conservación y a su accesibilidad. Tales medidas garantizarán en particular que, por defecto, los datos personales no sean accesibles, sin la intervención de la persona, a un número indeterminado de personas físicas.

3. Podrá utilizarse un mecanismo de certificación aprobado con arreglo al artículo 42 como elemento que acredite el cumplimiento de las obligaciones establecidas en los apartados 1 y 2 del presente artículo.

## *Artículo 26*

### **Corresponsables del tratamiento**

1. Cuando dos o más responsables determinen conjuntamente los objetivos y los medios del tratamiento serán considerados corresponsables del tratamiento. Los corresponsables determinarán de modo transparente y de mutuo acuerdo sus responsabilidades respectivas en el cumplimiento de las obligaciones impuestas por el presente Reglamento, en particular en cuanto al ejercicio de los derechos del interesado y a sus respectivas obligaciones de



eskuratzeke betekizunak direla-eta, salbu eta beraien erantzukizunak aplikagarria zaien Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen mende badaude eta horren neurrian. Akordio horretan interesdunentzako harremanetarako gune bat izenda daiteke.

2. Aurreko 1. zenbakian adierazitako akordioan behar bezala jasoko dira erantzukide bakoitzak interesdunekiko dituen funtzio eta harremanak. Interesdunaren eskura jarriko dira akordioaren alderdi funtsezkoak.

3. Artikulu honetako 1. zenbakian aipatzen den akordioaren zehaztapenak eragotzi gabe, erregelamendu honetan aitortzen zaizkien eskubideak egikaritu ahal izango dituzte interesdunek arduradun bakoitzaren aurrean eta haien kontra.

#### *27. artikulua*

### **Batasunean kokatuta ez dauden tratamenduaren arduradun edo eragileen ordezkariak**

1. Erregelamendu honetako 3.2 artikulua aplikagarria denean, tratamenduaren arduradunak edo eragileak ordezkari bat izendatuko du, idatziz, Batasunean.

2. Kasu hauetan ez da aplikatuko artikulu honetako 1. zenbakian ezarritakoa:

a) Noizbehinkako tratamenduak, 9.1 artikuluan adierazitako datu-kategoria bereziak eskala handian tratatzea ez dakartenak, edo 10. artikuluan aipaturiko kondena eta arau-hauste penalei buruzko datu pertsonalak tratatzea ez dakartenak, eta tratamenduaren nolakotasuna, testuingurua, irismena eta helburuak kontuan hartuta pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako arriskurik nekez ekarriko dutenak.

b) Agintaritza edo erakunde publikoak.

3. Ondasun edo zerbitzuen eskaintza baten testuinguruan datu pertsonalen tratamendua jasotzen duten interesdunak edo jokaera kontrolatzen zaien interesdunak zein estatu

suministro de información a que se refieren los artículos 13 y 14, salvo, y en la medida en que, sus responsabilidades respectivas se rijan por el Derecho de la Unión o de los Estados miembros que se les aplique a ellos. Dicho acuerdo podrá designar un punto de contacto para los interesados.

2. El acuerdo indicado en el apartado 1 reflejará debidamente las funciones y relaciones respectivas de los corresponsables en relación con los interesados. Se pondrán a disposición del interesado los aspectos esenciales del acuerdo.

3. Independientemente de los términos del acuerdo a que se refiere el apartado 1, los interesados podrán ejercer los derechos que les reconoce el presente Reglamento frente a, y en contra de, cada uno de los responsables.

#### *Artículo 27*

### **Representantes de responsables o encargados del tratamiento no establecidos en la Unión**

1. Cuando sea de aplicación el artículo 3, apartado 2, el responsable o el encargado del tratamiento designará por escrito un representante en la Unión.

2. La obligación establecida en el apartado 1 del presente artículo no será aplicable:

a) al tratamiento que sea ocasional, que no incluyan el manejo a gran escala de categorías especiales de datos indicadas en el artículo 9, apartado 1, o de datos personales relativos a condenas e infracciones penales a que se refiere el artículo 10, y que sea improbable que entrañe un riesgo para los derechos y libertades de las personas físicas, teniendo en cuenta la naturaleza, contexto, alcance y objetivos del tratamiento, o

b) a las autoridades u organismos públicos.

3. El representante estará establecido en uno de los Estados miembros en que estén los interesados cuyos datos personales se traten en el contexto de una oferta de bienes o



kidetan dauden, huraxe izango da ordezkariaren kokalekua.

4. Tratamenduaren arduradunak edo eragileak ordezkariari aginduko dio ezen, arduradun edo eragilearekin batera edo haien ordeza, erantzun diezaiela kontrol-agintarietara eta interesdunetara, batez ere, tratamenduari buruzko gai guztien inguruan egiten dituzten kontsultei, erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen dela berma dadin.

5. Tratamenduaren arduradunak edo eragileak ordezkari bat izendatzeak ez du ezertan eragotziko arduradunaren edo eragilearen beraren kontra egin daitezkeen lege-egintzak aurrera eramatea.

#### *28. artikulua*

### **Tratamendu-eragilea**

1. Tratamendua arduradun baten kontura egiten bada, arduradun horrek arazoizko neurri tekniko eta antolakuntzako aplikatzeko bermeak eskaintzen dituzten eragileak aukeratu ditu soilik, hartara tratamendua bat etortzeko erregelamendu honetako eskakizunekin eta interesdunaren eskubideen babesa bermatzeko.

2. Tratamendu-eragileak ez du beste eragile batengana joko ez badu aurrez arduradunaren idatzizko baimena, espezifikoa edo orokorra. Azken kasu horretan, beste eragile batzuen aukeraketan edo ordezkapenean aurreikusten diren aldaketen berri jakinaraziko dio eragileak arduradunari, zeinak, hartara, aukera izango baitu aldaketa horien aurka egiteko.

3. Eragileak gauzatu beharreko tratamendua kontratu batek edo Batasunaren edo estatu kideen zuzenbidearen arabeko beste egintza juridiko batek arautuko du, zeinak eragileak arduradunarekin lotuko baitu eta tratamenduaren gaia, iraupena, nolakotasuna eta helburua, eta datu pertsonalen izaera eta interesdun-kategoriak eta arduradunaren betebeharrak eta eskubideak ezarriko baititu. Kontratu edo egintza juridiko horrek zeregin

servicios, o cuyo comportamiento esté siendo controlado.

4. El responsable o el encargado del tratamiento encomendará al representante que atiende, junto al responsable o al encargado, o en su lugar, a las consultas, en particular, de las autoridades de control y de los interesados, sobre todos los asuntos relativos al tratamiento, a fin de garantizar el cumplimiento de lo dispuesto en el presente Reglamento.

5. La designación de un representante por el responsable o el encargado del tratamiento se entenderá sin perjuicio de las acciones que pudieran emprenderse contra el propio responsable o encargado.

#### *Artículo 28*

### **Encargado del tratamiento**

1. Cuando se vaya a realizar un tratamiento por cuenta de un responsable del tratamiento, este elegirá únicamente un encargado que ofrezca garantías suficientes para aplicar medidas técnicas y organizativas apropiadas, de manera que el tratamiento sea conforme con los requisitos del presente Reglamento y garantice la protección de los derechos del interesado.

2. El encargado del tratamiento no recurrirá a otro encargado sin la autorización previa por escrito, específica o general, del responsable. En este último caso, el encargado informará al responsable de cualquier cambio previsto en la incorporación o sustitución de otros encargados, dando así al responsable la oportunidad de oponerse a dichos cambios.

3. El tratamiento por el encargado se regirá por un contrato u otro acto jurídico con arreglo al Derecho de la Unión o de los Estados miembros, que vincule al encargado respecto del responsable y establezca el objeto, la duración, la naturaleza y la finalidad del tratamiento, el tipo de datos personales y categorías de interesados, y las obligaciones y derechos del responsable. Dicho contrato o acto jurídico estipulará, en



hauek esleituko dizkio eragileari:

- a) Arduradunaren jarraibide dokumentatuei segituz baino ez ditu tratatuko datu pertsonalak, baita hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitzen diren datu pertsonalen kasuan ere, noiz eta ez dagoen horretara behartuta eragileari aplikagarria zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen indarrez; kasu horretan, tratamenduaren aurreko lege-betebehar horren jakitun ipiniko du eragileak arduraduna, salbu eta zuzenbide horrek debekatu egiten badu, interes publikoko arrazoi sendoak direla medio.
- b) Bermatuko du datu pertsonalen tratamendua egiteko baimena duten pertsonak konpromisoa izango dutela konfidentziasuna errespetatzeko edo konfidentziasunari buruzko estatutu-betebehar baten mende daudela.
- c) 32. artikulua arabera beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu.
- d) Beste tratamendu-eragile batengana jotzeko 2. eta 4. zenbakietan adierazitako eskakizunak errespetatuko ditu.
- e) Tratamenduaren nolakotasuna kontuan hartuta, laguntza emango dio tratamenduaren arduradunari, ahal den guztietan, neurri tekniko eta antolakuntzako bitartez, III. kapituluaren ezarritako interesdunen eskubideak egikaritzea helburu duten eskubideei erantzuteko arduradunak duen betebeharra konplitzeko.
- f) Laguntza emango dio tratamenduaren arduradunari 32.etik 36.era bitarteko artikulua betetzen direla bermatzeko, kontuan hartuta tratamenduaren nolakotasuna eta tratamendu-eragilearen esku dagoen informazioa.
- g) Tratamenduaren arduradunak hartzen duen erabakiaren arabera, datu pertsonal guztiak ezereztu edo itzuliko ditu tratamenduaren zerbitzuen prestazioa amaitutakoan, eta dauden kopiak ezabatuko ditu, noiz eta Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak ez duen datu pertsonalak

particular, que el encargado:

- a) tratará los datos personales únicamente siguiendo instrucciones documentadas del responsable, inclusive con respecto a las transferencias de datos personales a un tercer país o una organización internacional, salvo que esté obligado a ello en virtud del Derecho de la Unión o de los Estados miembros que se aplique al encargado; en tal caso, el encargado informará al responsable de esa exigencia legal previa al tratamiento, salvo que tal Derecho lo prohíba por razones importantes de interés público;
- b) garantizará que las personas autorizadas para tratar datos personales se hayan comprometido a respetar la confidencialidad o estén sujetas a una obligación de confidencialidad de naturaleza estatutaria;
- c) tomará todas las medidas necesarias de conformidad con el artículo 32;
- d) respetará las condiciones indicadas en los apartados 2 y 4 para recurrir a otro encargado del tratamiento;
- e) asistirá al responsable, teniendo cuenta la naturaleza del tratamiento, a través de medidas técnicas y organizativas apropiadas, siempre que sea posible, para que este pueda cumplir con su obligación de responder a las solicitudes que tengan por objeto el ejercicio de los derechos de los interesados establecidos en el capítulo III;
- f) ayudará al responsable a garantizar el cumplimiento de las obligaciones establecidas en los artículos 32 a 36, teniendo en cuenta la naturaleza del tratamiento y la información a disposición del encargado;
- g) a elección del responsable, suprimirá o devolverá todos los datos personales una vez finalice la prestación de los servicios de tratamiento, y suprimirá las copias existentes a menos que se requiera la conservación de los datos personales en virtud del Derecho de la Unión o de los



kontserbatzea eskatzen.

h) Artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia jarriko du tratamenduaren arduradunaren esku, bai eta arduradunak edo hark baimendutako beste auditore batek auditoriak, ikuskapenak barne, egin ditzan ahalbidetzeko eta laguntzeko ere.

Lehenengo paragrafoko h) letran xedatutakoa dela-eta, tratamendu-eragileak berehala ipiniko du jakinaren gainean arduraduna baldin eta, beraren aburuz, instrukzio batek erregelamendu hau edo datu-babesaren alorreko Batasunaren edo estatu kideen beste xedapenik urratzen badu.

4. Tratamendu-eragileak beste eragile batengana jotzen badu arduradunaren kontura halako jarduera jakin batzuk aurrera eramateko, 3. zenbakian arduradunaren eta eragilearen artean xedatutako datu-babesari buruzko betebeharrak ezarriko zaizkio bigarren eragile horri, kontratu bidez edo Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen arabera beste egintza juridiko baten bidez, bereziki arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzako aplikatzeko bermeak eskaintzea, tratamendua erregelamendu honetako xedapenekin bat etor dadin. Bigarren eragile horrek ez baditu datu-babesari buruzko bere eginbeharrak betetzen, hasierako eragilearena jarraituko du izaten oso-osorik erantzukizunak arduradunaren aurrean, bigarren eragilearen eginbeharrak betetzeari dagokionez.

5. Tratamenduaren arduraduna erregelamendu honetako 40. artikuluari jarraituz onartutako jokabide-kode bati atxikitzea edo 42. artikuluari jarraituz onartutako ziurtapen-mekanismo bati atxikitzea baliagarria izan daiteke artikuluko honetako 1. eta 4. zenbakietako bermeak betetzen dituela frogatzeko.

6. Tratamenduaren arduradunak eta

Estados miembros;

h) pondrá a disposición del responsable toda la información necesaria para demostrar el cumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente artículo, así como para permitir y contribuir a la realización de auditorías, incluidas inspecciones, por parte del responsable o de otro auditor autorizado por dicho responsable.

En relación con lo dispuesto en la letra h) del párrafo primero, el encargado informará inmediatamente al responsable si, en su opinión, una instrucción infringe el presente Reglamento u otras disposiciones en materia de protección de datos de la Unión o de los Estados miembros.

4. Cuando un encargado del tratamiento recurra a otro encargado para llevar a cabo determinadas actividades de tratamiento por cuenta del responsable, se impondrán a este otro encargado, mediante contrato u otro acto jurídico establecido con arreglo al Derecho de la Unión o de los Estados miembros, las mismas obligaciones de protección de datos que las estipuladas en el contrato u otro acto jurídico entre el responsable y el encargado a que se refiere el apartado 3, en particular la prestación de garantías suficientes de aplicación de medidas técnicas y organizativas apropiadas de manera que el tratamiento sea conforme con las disposiciones del presente Reglamento. Si ese otro encargado incumple sus obligaciones de protección de datos, el encargado inicial seguirá siendo plenamente responsable ante el responsable del tratamiento por lo que respecta al cumplimiento de las obligaciones del otro encargado.

5. La adhesión del encargado del tratamiento a un código de conducta aprobado a tenor del artículo 40 o a un mecanismo de certificación aprobado a tenor del artículo 42 podrá utilizarse como elemento para demostrar la existencia de las garantías suficientes a que se refieren los apartados 1 y 4 del presente artículo.

6. Sin perjuicio de que el responsable y el





eragileak beren artean banakako kontratu bat egitea eragotzi gabe, artikuluko honetako 7. eta 8. artikuluetako kontratueterako klausula-ereduetan oinarritu ahal izango da, osorik edo partez, artikuluko honetako 3. eta 4. zenbakietan aipatzen den kontratu edo bestelako egintza juridikoa; baita 42. eta 43. artikuluei jarraituz tratamenduaren arduradunari edo eragileari emandako ziurtapen baten zati direnean ere.

7. Batzordeak kontratueterako klausula-ereduak finkatu ahal izango ditu artikuluko honetako 3. eta 4. zenbakietan aipatzen diren gaiei begira, 93.2 artikuluan adierazitako azterketa-prozeduraren arabera.

8. Kontrol-agintaritzak batek kontratueterako klausula-ereduak finkatu ahal izango ditu artikuluko honetako 3. eta 4. zenbakietan aipatzen diren gaiei begira, 63. artikuluan adierazitako koherentzia-mekanismoen arabera.

9. Artikuluko honetako 3. eta 4. zenbakietan aipatzen den kontratu edo bestelako egintza juridikoa idatziz jasoko da, baita formatu elektronikoan ere.

10. Artikuluko honetako 82., 83. eta 84. artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe, tratamendu-eragile batek tratamenduaren helburuak eta bitartekoak zehazten dituen erregelamendu hau urratzen badu, tratamendu horren arduradunatzat joko da.

#### *29. artikulua*

### **Tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen agindupeko tratamendua**

Tratamendu-eragileak eta datu pertsonalak irispidean dituen eta arduradunaren edo eragilearen agindupean diharduen edozein pertsonak ezingo ditu datuok tratatu, arduradunaren jarraibideei kasu eginez baina, noiz eta ez dagoen horretara behartuta Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen indarrez.

encargado del tratamiento celebren un contrato individual, el contrato u otro acto jurídico a que se refieren los apartados 3 y 4 del presente artículo podrá basarse, total o parcialmente, en las cláusulas contractuales tipo a que se refieren los apartados 7 y 8 del presente artículo, inclusive cuando formen parte de una certificación concedida al responsable o encargado de conformidad con los artículos 42 y 43.

7. La Comisión podrá fijar cláusulas contractuales tipo para los asuntos a que se refieren los apartados 3 y 4 del presente artículo, de acuerdo con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 93, apartado 2.

8. Una autoridad de control podrá adoptar cláusulas contractuales tipo para los asuntos a que se refieren los apartados 3 y 4 del presente artículo, de acuerdo con el mecanismo de coherencia a que se refiere el artículo 63.

9. El contrato u otro acto jurídico a que se refieren los apartados 3 y 4 constará por escrito, inclusive en formato electrónico.

10. Sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 82, 83 y 84, si un encargado del tratamiento infringe el presente Reglamento al determinar los fines y medios del tratamiento, será considerado responsable del tratamiento con respecto a dicho tratamiento.

#### *Artículo 29*

### **Tratamiento bajo la autoridad del responsable o del encargado del tratamiento**

El encargado del tratamiento y cualquier persona que actúe bajo la autoridad del responsable o del encargado y tenga acceso a datos personales solo podrán tratar dichos datos siguiendo instrucciones del responsable, a no ser que estén obligados a ello en virtud del Derecho de la Unión o de los Estados miembros.



### 30. artikulua

#### Tratamendu-jardueren erregistroa

1. Tratamenduaren arduradun bakoitzak eta, halakorik badago, arduradun horren ordezkariak beren ardurapean egindako tratamendu-jardueren erregistro bat eramango dute. Erregistro horrek informazio hau guztia jasoko du:

- a) Tratamenduaren arduradunaren izena eta harremanetarako datuak eta, halakorik badago, erantzukidearenak, arduradunaren ordezkariarenak eta datuak babesteko ordezkariarenak.
- b) Tratamenduaren helburuak.
- c) Interesdun-kategorien eta datu pertsonalen kategorien deskribapena.
- d) Datu pertsonalak zer hartzaile-kategoriari komunikatu zaizkion edo komunikatuko zaizkion, baita hirugarren herrialde bateko hartzaileak edo nazioarteko erakundeak direnean ere;
- e) Halakorik badago, hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera egindako datu pertsonalen transferentziak, hirugarren herrialde horren edo nazioarteko erakunde horren identifikazioa barne, eta, 49.1 artikuluko bigarren paragrafoko transferentzien kasuan, berme egokiei buruzko dokumentazioa.
- f) Ahal bada, datu-kategoriak ezerezteko aurreikusitako epeak.
- g) Ahal bada, 32.1 artikuluan aipaturiko segurtasunari buruzko neurri tekniko eta antolakuntzakoen deskribapen orokorra.

2. Eragile bakoitzak eta, halakorik badago, eragile horren ordezkariak tratamenduaren arduradun baten kontura egindako tratamendu-jardueren kategorien erregistro bat eramango dute, zeinak hauek jasoko baititu:

- a) Eragilearen edo eragileen izena eta

### Artículo 30

#### Registro de las actividades de tratamiento

1. Cada responsable y, en su caso, su representante llevarán un registro de las actividades de tratamiento efectuadas bajo su responsabilidad. Dicho registro deberá contener toda la información indicada a continuación:

- a) el nombre y los datos de contacto del responsable y, en su caso, del corresponsable, del representante del responsable, y del delegado de protección de datos;
- b) los fines del tratamiento;
- c) una descripción de las categorías de interesados y de las categorías de datos personales;
- d) las categorías de destinatarios a quienes se comunicaron o comunicarán los datos personales, incluidos los destinatarios en terceros países u organizaciones internacionales;
- e) en su caso, las transferencias de datos personales a un tercer país o una organización internacional, incluida la identificación de dicho tercer país u organización internacional y, en el caso de las transferencias indicadas en el artículo 49, apartado 1, párrafo segundo, la documentación de garantías adecuadas;
- f) cuando sea posible, los plazos previstos para la supresión de las diferentes categorías de datos;
- g) cuando sea posible, una descripción general de las medidas técnicas y organizativas de seguridad a que se refiere el artículo 32, apartado 1.

2. Cada encargado y, en su caso, el representante del encargado, llevará un registro de todas las categorías de actividades de tratamiento efectuadas por cuenta de un responsable que contenga:

- a) el nombre y los datos de contacto del



harremanetarako datuak, bai eta eragilearen gaineko arduradun bakoitzarenak ere, eta halaber, halakorik badago, arduradunaren edo eragilearen ordezkariarenak eta datuak babesteko ordezkariarenak.

b)Arduradun bakoitzaren kontura egindako tratamenduen kategoriak.

c)Halakorik badago, hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera egindako datu pertsonalen transferentziak, hirugarren herrialde horren edo nazioarteko erakunde horren identifikazioa barne, eta, 49.1 artikuluko bigarren paragrafoko transferentzien kasuan, berme egokiei buruzko dokumentazioa.

d)Ahal bada, 32.1 artikuluan aipaturiko segurtasunari buruzko neurri tekniko eta antolakuntzakoak deskribapen orokorra.

3. Artikulu honetako 1. eta 2. zenbakietan aipatzen diren erregistroak idatziz egingo dira, baita formatu elektronikoa ere.

4. Hala eskatzen duen kontrol-agintaritzaren esku jarriko du erregistroa tratamenduaren arduradunak edo eragileak eta, halakorik badago, arduradunaren edo eragilearen ordezkariak.

5. Artikulu honetako 1. eta 2. zenbakietako eskakizunak ez zaizkie aplikatuko 250 lagun baino gutxiago dituzten enpresa edo erakundeei, salbu eta tratamenduak arriskurik ekar badezake interesdunen eskubide eta askatasunetarako, ez bada noizbehinkakoa edo 9.1 artikuluan adierazitako datu-kategoria bereziak baditu edo 10. artikuluan aipaturiko kondena eta arau-hauste penalei buruzko datu pertsonalak baditu.

### *31. artikulua*

#### **Lankidetzaren kontrol-agintaritzarekin**

Tratamenduaren arduradunak eta eragileak eta, halakorik badago, haien ordezkariak lankidetzan jardungo dute kontrol-agintaritzarekin beren eginkizunak betetzen dituztenean.

encargado o encargados y de cada responsable por cuenta del cual actúe el encargado, y, en su caso, del representante del responsable o del encargado, y del delegado de protección de datos;

b)las categorías de tratamientos efectuados por cuenta de cada responsable;

c)en su caso, las transferencias de datos personales a un tercer país u organización internacional, incluida la identificación de dicho tercer país u organización internacional y, en el caso de las transferencias indicadas en el artículo 49, apartado 1, párrafo segundo, la documentación de garantías adecuadas;

d)cuando sea posible, una descripción general de las medidas técnicas y organizativas de seguridad a que se refiere el artículo 30, apartado 1.

3. Los registros a que se refieren los apartados 1 y 2 constarán por escrito, inclusive en formato electrónico.

4. El responsable o el encargado del tratamiento y, en su caso, el representante del responsable o del encargado pondrán el registro a disposición de la autoridad de control que lo solicite.

5. Las obligaciones indicadas en los apartados 1 y 2 no se aplicarán a ninguna empresa ni organización que emplee a menos de 250 personas, a menos que el tratamiento que realice pueda entrañar un riesgo para los derechos y libertades de los interesados, no sea ocasional, o incluya categorías especiales de datos personales indicadas en el artículo 9, apartado 1, o datos personales relativos a condenas e infracciones penales a que se refiere el artículo 10.

### *Artículo 31*

#### **Cooperación con la autoridad de control**

El responsable y el encargado del tratamiento y, en su caso, sus representantes cooperarán con la autoridad de control que lo solicite en el desempeño de sus funciones.



## 2. atala

### Datu pertsonalen segurtasuna

#### 32. artikulua

#### Tratamenduaren segurtasuna

1. Tratamenduaren arduradunak eta eragileak, kontuan hartuta eskura dagoen puntako teknologia eta aplikazioaren kostua, bai eta tratamenduaren nolakotasuna, eremua, testuingurua eta helburuak ere, eta halaber pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako tratamenduak izan ditzakeen askotariko probabilitate eta larritasun-mailako arriskuak, arrisku horri aurre egiteko adinako arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartuko dituzte; besteak beste, hauek:

- a) Datu pertsonalen seudonimizazioa eta zifratzea.
- b) Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko gaitasuna.
- c) Gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzeko gaitasuna.
- d) Tratamenduaren segurtasuna bermatzen duten neurri tekniko eta antolakuntzako eraginkortasuna aldian-aldian egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesua.

